

PuLunPe

137. ZeNBaKia

ANUE, ATETZ, BASABURUA, IMOTZ, LANTZ, ODIETA ETA ULTZAMAKO ALDIZKARIA



KUKURRUKU!

- ZER DIOZU?
- BURUKO MIN.
- ZEINEK EGIN?
- AZERIAK.
- AZERIA NON DA?
- TXOTXAK BILTZEN.
- TXOTXAK ZERTARAKO?
- SUA PIZTEKO.

- SUA ZERTARAKO?
- AMONA BEROTZEKO.
- AMONA ZERTARAKO?
- OILOARI JANA EMATEKO.
- OILOA ZERTARAKO?
- ARRAUTZA EGITEKO.
- ARRAUTZA ZERTARAKO?
- GU GUZTIOK JATEKO.

Virginia Iragui Olo

Auza herria, Ultzaman handitu denetako bat da. Gaur bertara joan gara Virginia Iragirekin egotera, PULUNPE banatzaile berriarekin. Puri Etxeberria, Dongixenekoa ibili da urte luzez eta orain Virginiari pasatu dio lekukoa. Virginia, Erripako alaba dugu, Iribarnekoa. Orain hiru urte ezkondu eta Auzara etorri eta bertan bizi da bere senarra den Arizkongo semea den Iñaki Maritorenarekin batera eta aurten berean jaio zaien Urko semearekin. Etxeko erregearekin. Harrera ezin hobea egin gaitu. Irripartsu hartu gaitu eta etxeko salan bildu gara kalakan.

Zu Erripakoa eta senarra baztandarra. Zergatik etorri zineten Auzara bizitzera. Lana Ultzama eta inguru honetan nuen eta biok ere herri batean bizi nahi genuen. Ultzaman ibili ginen etxe baten bila eta Basaburuan ere bai. Azkenean, hau aukeratu genuen, tokia, prezioa...gauza askorengatik. Hiru urte hemen bizi gara.

Oraindik jendea ezagutzen.

Bai, lana dela, negua dela...aukera asko ez dugu izaten elkarrekin egoteko. Hala ere, udan, urbanizazio tiki honetan, harreman handia izaten dugu. Plastikozko pizina tiki bat jartzen dugu eta elkarrekin aunditz egoten gara. Oso ongi pasatzen dugu. *Virginiak lehen ikasketak Ultzaman egin zituen alderdi honetako guziek bezalatsu, euskaraz, gero Burlatan egni zuen BBB edo BUP delakoa. Ondoren, Txantrean egin zuen UBI.*

Eta lanbidea hautatu eta ikasketak egin

behar.

Bai, erizain laguntzaile izateko ikasi nuen Iruñean, akademia pribatu batean. Iruñen egin genituen azterketak. Ongi go-goan dut zortzi ginela eta zortziak gaintu genituela azterketak.

Ongi prestatuak joanen zineten eta. Eta bukatu eta lanera.

Ja, ja, ja, bai, bai, hala izan zen, ahal bezainbat ikasi genuen. Gero, lanean Iruñerrian aritu nintzen, lehenik Burlatan, Landazabal xahartegian eta gero Iruñean Amma Oblatas delakoan. Hiruna urte pasatu nuen bakoitzean.

Eta gero Ultzama aldera.

Bai, hemengo Gizarte Zerbitzuan oposizio edo azterketa bat egin behar zutela, ordezkapenak egiteko langile baten beharretan zirela eta. Aurkeztu nintzen eta horrela ateratu nuen plaza. Orain zazpi urte izan zen. Izugarri kontent nago, izugarri gustura hemengo xaharrei kasu egiten.

Orrialde honetan toki gutxi dugu, Virginia. Azkeneko galdera Zenbat Pulunpe banatzen dituzu?

Laurogei ale hileru, etxez etxe, eta gustura hasi naiz, jendearekin egoteko, elkar ezagutzeko...oso gustura; eta, gainera, euskara eta Ametzaren alde lanean, zerbait egin behar da eta.

Andre presta, lanerako gogoz betea eta gainera alaitasunez betea; irripartsu har eta agur esan arte ez zaio irriparra itzali ezpainetatik.

Bera kontent badago, hemengo xaharrek ere ez dira gutxiago egonen Virginia bezalako zaintzaileekin.



PULUNPEK EZ DU BERE GAIN HARTZEN ALDIZKARIAN ADIERAZITAKO ESANEN ETA IRITZIEN ERANTZUKIZUNA

Argitaratzailea AMETZA KULTUR ELKARTEA

Pulunpe Sarea: Euskara Zerbitzua, Gurutze, Eurne, Laia, Ainara, Patxi, Goizargi, Inma, Izaskun, Maitane, Alicia, Bakartxo, Iñigo, Irantzu, Josu, Arantxa, Iñaki, Jese, Maika, Asier, Facebooken parte hartzen duzuenoi, etab... Barkatu aipatu ez zaituztedanoi.

Zenbaki honetako kolaboratzaileak: Sareko taldekideez gain, Txurdan eta Salsamendi.


Koordinatzailea: **Iosu Martinez Urdaci**

Argazkiak: Txurdan, Facebook sareko jendea, Saltsa Purrusta eta Urtebetetzetara bidaltzen dituzuenak.

Tirada 1.600 ale.

Inprimategia: Gertu - Maketazioa: AMETZA - Lege gordailua: NA 721/93

2015KO URTARRILAREN 4AN INPRIMATEGIRA BIDALIA.



HORMARA

ERAKUSKETA:
Irailaren 15etik Urriaren
15era "Maia emakumeak,
duintasanaren koloreak"

Irailak 27 LARRAINTZAR,
19:00: LA DOCTRINA
DELSHOCK pelikula
dokumentala, kapitalismo
neoliberalaren batere...

EUSKARAREN MUGIMENDUAREN 10 OINARRIAK

1. Euskal Herrian hizkuntza-aniztasun oparoa dugu. Ikerketek diotenez, ehundik gora hizkuntza hitz egiten dira gure auzo eta herrietan. Aberastasun hori nabarmentzen dugu, munduko kultura ugariaren "enbaxadoreak" gure auzotarrak baitira, baikara. Aniztasunak gure herria aberasten du, gu guztiok aberasten gaitu.
2. Euskara da, bertako eta berezko hizkuntza, hizkuntza endemikoa. Halaber gutxiagoturiko hizkuntza da eta bizi-eremu lur hau soilik du hizkuntza komunitateak. Munduko hizkuntza aniztasunari egiten diogun ekarpena da euskaraz bizitzea.
3. Bakoitzak bere hizkuntza zaindu eta erabili behar du, bakoitzarena da eta aldi berean guztiona. Hizkuntzak ezagutuz aberastu egiten gara, ordura arte ezezagunak genituen hainbat alderdi deskubritzen baititugu. Euskal Herrian euskara izan dadila partekatzen eta erabiltzen dugun hizkuntza, gu guztiona, geurea.

EUSKARA PARTEKATZEN

DUGUNA 4. Gurera datozen, gatozen, etorri berrientzat harrera linguistikorako egitasmoak bultzatu behar dira, herritarron arteko harremanak bultzatuko dituztenak, herritarron arteko elkar ezagutza bultzatuko dutenak.

5. Herritar guztien eskubide linguistikoak babestu behar dira. Eskubide hauek herritar guztien oinarrizko eskubideen ingurumarian kokatzen ditugu eta beste eskubide guztiak bezala, herritar guztientzat berdintasun sozialerako oinarrizkoak dira.

6. Euskararen hizkuntza komunitatea eta gizarte zibil nahiz sozio-

politikoaren gehiengoa euskara sustatzearen alde dago. Oraindik orain pausu erabakigarriak eman beharko ditugu euskara normalizatzeko. Bakoitzak bere ardurak ditu eta hartu behar ditugu, jendarte osoak, salbuespenik gabe.

7. Euskaraz ikasi ahal izateak bertan bizi garen guztion eskubidea izan behar du. Helduen euskalduntze eta alfabetatzeak guztion eskura egon behar du, doakoa izan behar du eta erakunde publikoek horretan arduraz berezia dute.

Hezkuntza sistemari dagokionez, euskarazko murgiltze ereduak da euskara barneratze bide eraginkorrena. Berau sustatu behar da, berdintasun soziala eta kohesio soziala bermatzeko bide azkarrena eta naturalena baita. Era berean, hizkuntza aniztasuna balorean jarriko duen hezkuntza sistema behar dugu, aniztasuna balorean jarriko duena, bertan dauzkagun hizkuntzak baitira.

8. Euskaraz bizi nahi duen hizkuntza komunitate bat dago. Etorkizuneko hizkuntza da eta guztion artean gero eta eremu gehiagotara zabaltzen ari gara.

9. Erabilera da hizkuntza baten bizitasunaren erakuslerik onena. Bizi dezagun euskara, bizi gaitezen euskaraz. Erabili dezagun euskara, edonon, edonorekin. Sortu ditugun euskaraz bizitzeko guneak eta uneak, aniztasuna aintzat hartuz. Aniztasunean, euskaraz bizi!

10. Euskara, beste hizkuntza guztien modura, munduko herritar guztien ondarea da. Hala ere, euskaldun, euskaltzale eta euskal herritar guztiona da euskara garatzeko ardurak, nagusiki. Euskarak batzen gaitu, euskarak egiten gaitu herri. Eraiki dezagun herri hau guztion artean, euskaraz.

EUSKALTZALEEN TOPAGUNEA



Zuhaitz zaharren lagunen egutegia jada salgai!

LUNPE 137



IRRATIA EGIPTORA
Oihanzabal eskolako laguntxoak irratira etorri ziren saio berezi bat egiteko.

Egiptori buruzko proiektua eskolan prestatzen egon ondoren, irratian azaldu ziguten faraoi, esfinge, piramide eta aintzinako kultura horri buruzko hamaika kontu.

Oso irratsaio interesgarri eta polita izan zen eta gure webgunean zintzilikatu dugu etxean lasai-lasai entzun nahi baduzu.


Entzun Txari Eletaren abestiak!



ESAN ERRAN IRRATIAREN ESTUDIOETAN TXARI ELETALIZASOARRAK ABESTI SESIO BAT GRABATU ZUEN.

ORAIN AMETZA.EUS GURE WEBGUNEAN ENTZUNGAI DITUZU. AHOTSA ETA KITARRA, ZUZENEAN!
ETA GOGORATU, ASTELEHENETIK OSTIRALERA, EGUNERO IRRATSAIOA, 10ETATIK 11ETARA!

ETA HILABETE HONETAN ERE...



Erakusketa berria Apeztegi berrin!

Herria izan nahi duen herria

Aizarotz "berriak" 10 urte bete ditu hilabete hauetan


Iruñeko etxe anonimo batean gaude, duela hamar bat urte. Pertsona gazte batek egunkaria ireki eta lasai-lasai orriak pasatzen hasten da; bat-batean bazter batean iragarki bat ikusi du: Etorri zaituz Aizarotza, herri berri bat naturaren erdian! Azken hamar urteetan Basaburuan gertatu den aldaketaren ispilu dugu herri hau. Biztanle gutxi batzuk zituen jaurerri txiki izatetik gaur egun 170 biztanle, 115 etxe eta 40 ume inguru ditu. Horretaz gain, kultur etxea, baratzak, erreka igerilekua, frontoia eta taberna daude bizilagunen zerbitzura. Iragakioak zioen bezala, honako hau naturaren erdian sortutako herri berri baten argazkia da.



Antolakuntza eredu interesgarria

Denboraren poderioz herri batzar ezberdinak sortu ziren zeuden kezkei aurre egin eta eginbeharrak betetzeko; herritarrek beren burua antolatzeko beharra ikusi zuten. Eredu ezberdinetan banatu zen lana. Batetik, Koordinaziokoa, Herria ordezkatu eta kudeatzen duen batzordea. Betetzen dituen funtzioen artean, diruzaintza, komunikazioa, eta udalarekiko harremana daude. Orain ikusiko ditugun beste batzordeetako bozeramaleekin batera elkartzen dira herriaren gorabeherak kudeatzeko. Baratzeeen batzordea; Udalak aspaldi aurrera eramane zuten proiektu honek 60 baratze inguru biltzen ditu. Elkargune bihurtu da. Gai honen kudeaketaz eta baita ingurumen eta konpostaren kontuez arduratzen dira batzorde honetako kideak. Kultura

batzordeak herria kulturalki aberastea du helburu; horretarako neguko eta udako festak eta ihoteak antolatzen dituzte. Ailegatzen zaizkien proposamenak eta ekimenak jaso eta, ahal den neurrian, aurrera eramaten dituzte. Azpiegiturez eta auzolanak antolatzeko arduratzen den batzordea ere badago; "argi dugu herri honetan dirua ez dagoela soberan, eta egiten diren gauzak denonak bezala sentitzeko auzolanak beharrezkoak direla", horrela zioten duela pare bat urte ateratako informazio batean. Batzordeen gainbegiratu hau bukatzeko, komentatu beharra dago guztiak irekiak direla eta herri zein bailarako biztanleak gonbidatzen dituztela parte hartzera. Beste bideen artean helbide elektronikoko bat dute edozein zalantza edo proposamenetarako: aizarotzherria@gmail.com



KARMENTXU GARCÉS. LEHENETARIKO BAT AILEGATZEN.

"Oso herri lasaia da eta aproposa eta erraza umeekin bizitzeko"

2004ko urrian sartu ginen; lehenetariok izan ginen. Urarekin arazoa zegoen, eta irailean egin zuten indusketa; arazoa ez bazen konpontzen beste urtebete itxoin beharko genuen. Oso urduri geunden baina aurrera atera zen. Etxe batzuk bukatu gabe bazeuden ere, gu sartu ginen, eraikuntza enpresak gogo asko zuelako dirua jasotzen hasteko. Giltzak hartu eta hurrengo egunean hasi

nintzen mudantza egiten. Lehenengo hilabete horietan jendea nahiko kontzentratua zegoen etxea egokitzen eta dena txukuntzen. Lehenengo udaberri edo udan hasi zen giroa sortzen; norbaitek esaten zuen herria kanpin bat bezalakoa zela, denak etorri berriak, denak kalean... Etxeak baxuak izanik, jendea oso erraz ateratzen da kalera. Urteak joan ahala, bakoitzak bere bizitza egin du; ume asko dago herrian da eta txakur asko ere bai. Beti esaten genuen; "Aizarotza datorren guztiak edo umeak edo txakurrak izaten pentsatzen ari da". Oso herri lasaia da eta aproposa eta erraza umeekin bizitzeko.



BENITO ALBERRO, BETIKO BIZTANLEA

Zein zen bailarako egoera demografikoa eta zer ondorio zuen horrek XXI. Mende hasieran? Haur gutxi jaiotzen ziren, ezkondu berri gutxi geratzen baitzen Basaburuan bizitzen,

besteak beste, lana bereontan aurkitzeko zaila izateaz gain, etxe bat egiteko zailtasun handiagoa zegoelako. Zaharrak ez ziren saltzen eta ez zen berririk egiten. Adinen batz bestekoa nahiko altua zen. Biztanleria zahartzen ari zen. Pixkanaka husteko joera hartzen ari zen. Eskoletan, adibidez, hurbil ikusten zen haurrak Larraintzarkora eramatea eta Jauntsaraskoa hertsitzea. Egoerari aurre egiteko beharrezkoa ikusten zen etxebizitza berriak egitea jendea erakartzeko eta gune bat prestatzea lantegiak etortzeko. **Zergatik aukeratu zen Aizarotz eta ez beste herri batzuk etxeak egiteko? Ez zen lehen pentsamendua izan. Hasieran iruditzen zitzaigun herri bakoitza zertxobait handitzea izanen zela onena, herriko gazteek herrian gelditzeko aukerak izateko. Baina, hori gertatzea ez da erraza luraren salerosketetan hain ohitura gutxi dagoen lekuan. Uste dut ez ge-**

nukeela etsi behar denon onerako izanen zelako. Aizarotzko aukera gero etorri zen, eta hasieran 2 etxe eta 6 etxebizitzako proiektua aurkeztu ziguten. Hari horri tiraka herria erabat berritzeko proiektura pasatu ginen.

Aldaketa handia bakarrik bizitzetik "bat-batean" jende asko egotera?

Izugarria! 5 lagun izatetik 180 baino gehiago izatera. Bizimodu erabat desberdina. Lehen bakarrik bizitzeak ekartzen duen askatasunaz gozatzen genuen, eta orain elkarbizitzak ekartzen dituen gazi gozoak dauzkagu. Lehen lagun artean egoteko besteak beste Gartzarona joaten nintzen eta hori oraindik mantentzen dut.

Nola landu daiteke jendeak hemen bizi eta lan egitea?

Gure baliabideez jabetu, garatu, erakutsi eta maitatu orain gaudenak horretaz gozatzeko eta ondorengoei hobetua uzteko. Elkarbizitzako gozotasunak indartzea gaztetatik hasita beren bizitzako imaginarioan Basaburua aukera indartsuena izateko.

"Besteek egin dezatela" ideia baztertu eta "denon artean eginen dugu" landu.

Goraipatzekoak dira hemen lan eta bizi direnak, denon laguntza merezi dute. Hurrengoendako adibide izan daitezela.



Iñigo Miranda. Koordinazio Batzordeko kidea. *"Gure nahia herria egitea da"*

Zein dira herriak dituen erronkak?

Gaur egun zaila da horiek definitzen, halere ikusten dugu hemendik, demagun, beste hamar urtera orain haurrak diren asko gazteak izango direla, eta horri erantzuna bilatu beharko zaio, moldatu beharra dago. Modu batean edo bestean ume "erreleboa" egongo da. Gazteei begiratuta, haiek ere izango dituzte betebeharrak, eta espero dugu batzordeetan ere integratzea. Soziologikoki begiratuta, egia da fenomeno bitxia izan dela herrian gertatutakoa; pentsa, gehienak batera etorri eta elkar ezagutu behar izan genuen... Beste mota bateko herrietan bakoitzak ditu bere familia eta ingurua, baina gure kasuan guztiak "zerotik" hasi ginen. Aizarotzek eraikitzen doan modua beste herri batzuekiko ezberdina izan badaiteke ere, herria izan nahi dugu.



Tuneletan segurtasuna hobetzeko liburuxka argitaratu dute

Belateko eta Almandozko tuneletan istripu kasuan zer egin azaltzen da



Albiste honekin datorren argazkian beste istripu bat ikusten da; urtarrila hasieran Berroetan gertatutako kamioi istripu bat. Belateko tunelen segurtasun maila baxuagatik arduratuta, Baztango Udalak liburuxka bat argitaratu du segurtasun gomendioekin. Oinarrizko gomendioak izanik, oso garrantzitsua iruditu zaigu guztiok ezagutzea. Gogorra dezagun errepide honek Europarekin lotura bidea dela, 9.000 ibilgailu pasatzen direla bertatik eta horietatik laurdena edo kamioiak direla. Hauek dira jakin beharreko gomendioak tuneletan ilarak, istripuak edota suteak izanez gero.

AUTO-ILARAK

- 1-. Keinukariak piztu
- 2-. Segurtasun tartea mantendu
- 3-. Zirkulazioa geldituta egonez gero, itzali motorra
- 4-. Jarraitu tuneleko langileek ematen dituzten aginduak

ISTRIPUA

- 1-. Keinukariak piztu
- 2-. Autoa eskuineko bazterbidera hurbildu ahal den guztia
- 3-. Motorra itzali eta giltzak jarrita utzi.
- 4-. Autotik atera
- 5-. Zaurituak lagundu
- 6-. Larrialdi zerbitzuei abisua eman.
- 7-. Jarraitu aginduak

SUTEA

- 1-. Keinukariak piztu
- 2-. Tuneletik autoa atera posiblea bada, bestela eskuin bazterbidera hurbildu
- 3-. Motorra itzali eta autotik atera.
- 4-. Larrialdi zerbitzuak deitu
- 5-. Posiblea bada zaurituak lagundu eta sutea itzaltzen lagundu
- 6-. Ezin baduzu lagundu, atera tuneletik



Azienda menditik etxea

Aurten udazken bikaina izan da eta azienda mendian ongi bazkatuta egon da. Negu sarreraren ekarri dituzte etxera. Azkenak ardiak eta batez ere behorrak izan dira Atakomendi, Launtze-Ernaizu behera ekarri dituztenak. Azken egunetan Iontza aldean pasa dituzte egunak.

BERUETEKO BERRI

Lapurren kontuz

Aurreko berrietan lapurren bisita aipatzen genuen eta nola etxeko ataritik Misubishi bat ebatsi zuten. Zorionez, azkenean agertu da. Andoainen zebiltzan, berriz ere txarkeriaren bat egiteko asmoz, autoko gorpila zulatu eta pista batean gelditu beharra izan dutenean. Gaueko bederatzia izaki eta bordari bat esku-argiekin hurbildu zaienean, lasterrari eman eta alde egin dute ibilgailua bertan utzirik. Gaizki dabilenak maiz beldurra. Guzti hori abenduaren 10ean izan zen eta oraindik ertzainen eskuetan da ibilgailua. Horiek ere beren lana egin behar ea lapurren atzamarren markak biltzen dituzten eta. Pozik izanen da Arotzeneko Jabier Misubishia aurkitu dutenean, horretan ez dago dudarik.



Gure kirolarien urtea

ASIER JUANBELTZ: MENDI BIZIKLETA

Asier Juanbeltz Asitz, beruetarra dugu, Seanbekoa. Mendi bizikletan lasterkari indartsua eta aurten garaipen handiak erdietsi dituena. Aurten Asier 23 urtez azpikoetan ibili da. Datorren urtean maila nagusian ibili beharko du. Berak esaten duenez: "Ikusi egin behar, hasieran behintzat nahiko lanekin ibiliko naiz" Aurten aurtengoa eta gero gerokoak. 2014, urtea garaipen hauetan laburbilduko dugu, den-denak ez aipatzearen.

AITOR IRAIZOTZ OIARTZUN: ULTRA TRAIL

Aitor Iraizotz aritzuarra dugu, aita Erramonekoa eta ama, berriz, Erripako Karakotxekoa. Hau ere mendi bizikletan ibilitakoa dugu, baina 2010. urtean lasterka, krosean hasi zen eta lehen lasterketa Lantzen irabazi zuen urte berean, 8 kilometrokoa. Beste seieta, hirugarren lekuan. Gero, aipatu era aipatuko ditugu nola Espai-

nia mailan, Aguilar de Campon, 13. gelditu zen eta Panticosan, berriz, 15.

Garaipen hauek direla eta, Euskadiko Federazioak 23 urtez azpikoetan txirrindularik hoberena izendatu du, eta Nafarroako Federazioak, berriz, bigarren txirrindulari hoberena. 2015. urte oparo bat opa diogu Asierri. Ahalegin faltagatik ez da izanez behintzat, horretan seguru gaude gure mutilarekin.

egin zuen, Huescan, 100 kilometrokoa. Eta ultra trail kirola zer den galdetuko duzu ezta? Ba, mendi lasterketa da ultra trail hori, baina 60 kilometrotik gorakoa denean, hau da, gogorretan gogorrena.

Eta horretan dabil Aitor izugarritzko arrakastarekin. Urtero horrelako hiru-lau lasterketa egingen ditu.

2013. urtean, hiru hauek egin zituen:

-Picos de Europa, 67 kilometro eta 6.700 metroko desnibela. Seigarren gelditu zen. -Mont Blanc, 166 kilometro eta 9.700 metroko desnibela. 25.a egin zuen.

-Guara Somontano, 100 kilometro eta 5.000 D+. Hemen 2. gelditu zen. Aurten izugarri egin du gora, zenbat eta gogorrago hainbat eta hobe, ikusiko duzunez. Ikus nolako postuak erdietsi dituen:

-Euskal Herriko mendi erronka. Leitzan hasi eta Leitzan bukatzen dena.

Aralar eta Berueteko Ireber lotuz. 65 kilometro eta 3.500 desnibela. 14.a gelditu zen 700 parte hartzaileen artean.

-Hiru handiak: Gorbeia, Anboto eta Aizkorri lotzen dituen. 100 kilometro de 5.500 D+. Laugarren gelditu zen 1.700 lasterkarien artean.

-Eta, azkenik, Mont Blanc-eko itzulia eta Tour du Mont Blanc (UTMB) Chamonix hirian. 168 kilometro eta 9.700 metroko desnibela. 2.500 lasterkari ziren bertan 77 nazioetakoak.

Hemen aurreko urtekoa izugarri hobetuz, 13.a egin zuen, 23 ordu eta 18 minututan. Aurreko urteko bere marka hautsi zuen, 2 ordu eta 10 minutu gutxiagoan eginez. Aitor, 2013an Munduko hoberenekoetan ibili bazen, aurten esan dezakegu Munduko elitean sartu dela. Bejondeiolla! Aurten hobetzea ez da erraza izanen, baina Aitorrengandik edozein gauza espero dezakegu. Hori erakutsi digu.

Ultzama ibaian lanak bukatzen ari dira

Ingeniaritza biologikoko teknikak aplikatu dituzte ibaia "bere onera" itzul dadin



Ibaia Ziaurritzen.

Iaz hasi eta aurten bukatu. Odieta Udalak ordaindutako lan hauek aurten ez dute diru-laguntzarik jaso. "Iaz diagnosis egin genuen, eta egin beharreko zenbait lan antzeman genituen". Hitz egiten duena Camino Jaso aditua da. Premiazko lanak egin ziren aurretik: irizpide zehatza erabilita zuhaitz zaharrak kendu, "animalientzako garrantzitsuak dira oso zuhaitz zaharrak", eta ibaia eta ubideak garbitu zituzten. Naturaren arazoak zientziaren bidez konpontzea da haien helburua. Ingeniaritza

biologikoko teknikak aplikatu dituzte: lehen ibaian errosioa zegoenean, harrizko pareta bat egiten zen; gaur egun, berriz, zurezko azpiegiturak erabiltzen dira. Lan egiteko modu hori honela laburtu daiteke: ibaia ondo zaindua badago, ondo jokatu du. Jasoren hitzetan: "Egon behar den bezala mantentzen bada arazo gutxiago emanen ditu". Helburu da ibaiaren alde guztietan haltzadiak egotea: "jatorrian haltzak zeuden; egoera horretara itzultzen bagara, kontaminazio arazoak gutxituko ditugu".

Ibaiaren osasunari begira, uraren kalitatean datza arazo handiena. Purinen filtrazioen eragina handia da uraren kalitatean. Beste faktoreei begiratuz gero, egoera ez da larria. Batez ere Ziaurritzen, Gaskuen eta Latasan aritu dira lanean. Eguberrien bueltan bukatuko dituzte aurten ez baitute bertan makinekin sartzerik izan.

Plazaolak 20 urte bete dituela ospatu du "Kidearen Eguna" antolatuz

Trenak Iruña eta Donostia arteko lehen bidaia egin zuenetik 100 urte pasatu dira eta 20 Partzuergoa sortu zenetik

Urte berezia ospatzen ari da Lekunberrin kokatua dagoen partzuergoa. Imoztik igarotzen den trenbidearen ehungarren urteurrena ospatzeko zenbait ekimen antolatu dituzte, eta abenduaren 10ean Kidearen Egunarekin despeditu zuten urtea. Gertuko bailaretako establezimendu desberdinetatik etorritako 30 pertsonatik gora elkartu ziren (landetxeak, hotelak, artisauak, dendak, ekintzak antolatzen dituzten enpresak...). Zerrenda luze horretatik, hemengoak azpimarratu nahi ditugu: Goldarazko Ollaondoko arrautza ekologikoak, Jauntzarasko Apeztegierriko barazkiez egindako "kitche" delakoak eta Latasako Plazaola Gozotegiko oroitzapenezko tartak.

Esne kuotak kendu



Antonio Erbiti, Alkozko abeltzainaa

Bere garaian esne kuotak zirela eta nahiko haserre, abarrots eta nahigabe sortu zen gurean. Hori dena Espainia Europako Komunitatean sartu eta laster izan zen. Kuota jarri baziren jarri, abeltzain zenbatekoa jaisten hasi zen, batez ere abeltzain ttikiek beren explotazioak utzi behar izan

zizuten, ttikiegi gelditzen hasi baitziren eta handituzeko ia ezinean gelditu baitziren beren kuota eskasa zela eta.

Orain, laster, heldu den martxoaren 31an kuotak desagertuko dira. Europaren legea da.

Honetaz denetaz jakiteko Oskozko Kooperatibako bazkide den Marian Iribarrenekin egon gara. Eta hala esan digu:

1993-1994 ko kanpainan ezarri ziren kuotak Espainian (urtea, apirilaren lehenean hurrengo urtearen 31a arte kontatzen da) Kuota jarri eta denbora laburrean Espainian ia 70.000 esne produktore desagertu ziren. Eta horien kuotak beste guztion artean banatu ziren, salerosketa bidez, kuotak

saldu baitzitezkeen.

Nafarroan ere esne ekoizleak purrustan behera egin zuten. Esate baterako, orain 10 urte Nafarroan 1.000 ekoizle ziren. Orain, berriz, 200 besterik ez dira gelditzen. Eta horien %10ek produkzioaren %80a dute. Eta aurreikusiten da 200 horietatik ere askok utziko diotela esnea ateratzeari.

Zer ekar lezake egoera berri honek? Hemendik aurrera bakoitzak nahi duen guztia ekoizten ahalko du. Eta ttikiek beharko dute beren ekoizpena handitu aurrera segi ahal izateko eta azienda gobernatzeko erak aldatu, izan mantedua, izan ernalketa... Jakina, bakoitzak nahi duen adina atera dezakeenean, irabazi marjinak estutzen dira...

Eta ustiategi handiak jart-

zeak ere baditu bere arazoak, adibidez nola eta non zabaldu ongarrria... hori dena dago arautua, beraz, ez da esatea, orain 40 behi gehiago jarri behar dituzte, ez. Konplikatzen dira gauzak...

Momentuz, izugarritzko ezegonkortasuna sortuko da merkatuan. Hasiera batean esnea merkatzea ekarriko luke honek guziak. Hori da pentsatzen dena. Eta denok gaude zer egin dezakegun jakin gabe, zain. Denok gaude zain.

Guri, honek guztiak zera galdetzeraz garrantzitsuak: Zergatik kendu behar ote dituzte kuotak? Europako helburuak zein dira? Berriz ere ekoizle ttikien kontra? Lehen kuota jarri eta aziendadunak gutxitu. Orain kendu eta esne ekoizle gutxiago behar omen...

NAFARROAN, EUSKARAREN EGOERARI BEGIRA

Riki Arangoa, Basaburuko alkatea: "Gau eskoletarako ez dute dirurik ematen"



Joan den 50 urte honetan euskara erakusten, euskaldun berriak sortzen. Hainbat eta hainbat lan egin dute IKAK eta AEK-k. Ia dirurik gabe lanean, dirua handik eta hemendik sortuz, irakasleak gutxi kobratuz, ahal bezala lanean. Nafarroako Gobern-

utik diru zerbait kobratzen zuten urtero eta hori ere Gobernu honek kendu die. Joan den bi urtean ez dute sosik kobratu, nahiz Nafarroako Gobernuak aurrekontuetan 240.000 euro agindu. Agindu bai, izugarritzko paperketa eta txostenak betearazi. Eta azkenean, deus ez.

-Zuk, Riki, euskaltegian ikasi duzu euskaraz eta mundu hau zerbait ezagutzen duzu. Zertan dabil Nafarroako Gobernuak? Zer ari da pasatzen? Zergatik darama Nafarroako Gobernuak euskararen kontrako gerra hau? Eta batez ere helduei euskara

erakusteko kontu honetan? Euskarak, ederra eta Europako zaharrena izateaz aparte, gure izaera markatzen du. Euskal Herriko lurra eta nortasunarekin lotzen gaitu. Nafarroako gobernuak ez du nahi euskara gure artean zabal dadin. Botereari eutsi eta jendea beren menpe edukitzea besterik ez du nahi. Euskara zabalduko balitz, gure jabetasunera hurbilduko ginatke. Hori ez dute inoiz onartuko.

Horregatik, euskararen garapenean, ahal dituzten trabak jartzen saiatzen dira. Badakite euskara ikasteko dirua behar dela eta diru-laguntzak moztean, herritarrek ikasteari

utziko diotela pentsatzen dute.

Eta egia da diru-laguntzak kentzeak zailtzen diola jendeari euskara ikastea. Beraz, helduak euskara erakutsi eta ikasi ahal izateko tresna guztiak jartzea (diru-laguntzak barne) exijitu behar diogu Nafarroko gobernuari.


Helduak ikasten ez badute oso zaila da umeak eta gazteak normaltasunez euskara erabiltzea. Horrela moztuko lukete transmisioa.

Guzi honetaz gain, guretako bakoitzak eginahal guzi egin beharko du gure hizkuntza honek aurrera egin dezan, geroa izan dezan.



Kolaborazioa

Sendotzak Basaburuan



A benduaren seian, larunbata, Sendotza Sakramentua ospatu zen Ihabengo Andre Mariaren Jaiotza Parrokian. Lau gaztek hartu zuten sakramentua:

Unai Ansorena Mariñelarena, Itsasoko *Tabernazarrekoa*

Joseba Gamboa Mariñelarena, Itsasoko *Zur-giñenekoa*

Mikel Barberena Mariñelarena, Ihabengo *Etxokondokoa*

Aitor Larrea Mariñelarena. Honek ama du Ihabengo *Juangonekoa*, nahiz eta astez Berriainen bizi.

Aldarean Basaburuko apezak eta Juan Antonio Aznarez, Iruñeko Gotzai laguntzailea

elkarrekin, gotzai jauna buru zelarrik.

Gotzai Jaunaren Hitzaldia

Gotzai Jaunak bere hitzaldian gazte hauek Jesusen erara bizitzera animatu zituen. Kristau bizitza nola mantendu adierazteko suaren adibidea jarri zien; lau gazte hauei galderak eginez azaldu zien: ez itzaltzeko suari egurrak sartu behar zaizkion antzera, kristau bizitza ez itzaltzeko otoitz egin, Jaunaren Hitza entzun eta Sakramentuak hartu behar dituztela.

Sendotza sakramentua-zeremonia

Ondoren Sendotza Sakramentua hartu zuten Gotzai jaunaren esku-

tik: Bataioko aginduak berritu, buruen gainean eskuan ezarri, eta Olio Santuz kopetan gurutzaren seinalea igurtzi.

Jendearen parte hartzea

Sendotza hartu zutenak lehenbiziko irakurgai, herriaren otoitzak, opari-gaiak eskaini eta eskerrak eman zituzten. Ospakizun guztia oso ongi atera zen. Eliza jendez ia-ia bete zen, guztiek parte hartu zuten abestietan, eta ia denak jaunartzera hurbildu ziren.

Gotzai jaunarekin hizketan

Ospakizunaren ondoren Gotzai jauna bildutakoengana hurbildu zen, denak banaka

agurtu zituen, nahi zuten guztiak berarekin hitz egiteko prest agertu zitzairen, eta aukera paregabea ongi aprobetxatu zuten.

Denak ahotan Eliz gizon oso ona, jendeumearengana hurbiltzen dena, apala, xalora, pertsonen egoeraz eta arazoetaz kezkatua dagoela nabari dela entzuten zen.

Elizatik aterata herriko elkartean sartu ziren eta edan bidenabar, Gotzai jaunarekin eta elkarrekin hitz eginez jarraitu zuten. Horrela amaitu zen egun horretako jai ederra, Sendotza Sakramentua hartzea.

Mendialdetik



Abenduko ekimenak Lantzen



Lantzen abendu biribila egiten dute. Ospakizun eta bestez bete.

Hasteko, hilaren 6an San Nikolas eguna ospatu zuten. Lehenik, goizez, etxez etxe, diru eskea, haurrak eta gazteak kantari. Nahiko arrautza, txistor eta urdai bildu

ondoren, ilunabarrean, afaria ederra prestatu zuten. Afarian, haur, guraso eta adinduak ere biltzen dira, lagunarte ederrean.

Olentzero, urtero bezala, eguberri bezperan etortzen da txintxo-txinto, arratsalde beranduan,

menditik behera, zuzien artean. Ikazkin herria izandakoan ikazkinen buruak ezin hutsik egin. Herriko soinu jotzaileak Olentzero laguntzen dute herriko karriken barna. Gero Udaletxean biltzen dira denak Olentzerorekin batera, bertan auzokoendako duten gela handi batean, ederki apaindua dena, ahotz pakekin eta horrela. Han bertan banatzen ditu Olentzerok Lanzko haurrendako ekarritako opari guziak. Aurten behintzat, nik uste denak ere nahiko konforme gelditu direla. Merezki ere merreziko zituzten jostailu

eta gainerakoak. Olentzerok zein oparo ibili den aurten eta zein ederki dakien euskaraz! Hilaren 27an, azkenean urte hauetan bezala, haurrek prestatu zuten antzerkia jokatu zen. Hau ere Udaletxean izan zen. Antzerkiak arrakasta handia izaten du. Adin guzietako jendea hurbiltzen da. Aurten oso ederki jokatu omen dute eta lana bera ere oso erakarria suertatu omen da. Ea hurrengo urtean ere, hau eta beste, lan guzi hauek prestatzen ibiltzen direnak, berriz ere saiatzen diren. Lantz ispilu bihurtu zaigu.

Iritzia

Momia eta mamia



Anjel Lertxundi

Nork ez ditu sufritu —eta praktikatu!— arau guztiak zintzo-tonto betetzen dituzten testu serio batere gazi-gozorik gabeak? Euskara batuan omen duden arren, ez dute bizitza transmititzen, ez dute arnasarik, momiari mamia falta zaio. Halako asko sufrituak gara. Ondorioa: airea duten piezak arnastu orduko euskara batuare-

kin kontrajartzen ditugu. Loreak kasu, egunotako polemika batean ikusi dugunez. Baina kontrakzioak bezalako aktorearen esateko modu etxeko batzuk gorabehera, Loreak ez dago batuan? Euskalkien aire ahozkoa ez dago ondo integratuta atmosfera batu batean?

Ez dugu euskara batuaren

pedagogiarik egin, baina jai dugu ez baditugu idatziaren eta ahozkoaren dinamikak bereizten. Zerbait gaizki egiten ari gara batua eta astuna, batua eta rolloa, batua eta pedantea berdintzen baditugu. Gaizki gabiltza, oso gaizki ere, batua eta freskura, batua eta bixipoxa, batua eta ozpintxarra elkarren etsaitzat hartuta bagabiltza.



Zozketa Mundiala bukatu da (1)

Saridun eta banatzaileekin hitz egin dugu



Aurten ile-apaindegiak ere laguntzaile izan ditugu; lehenbiziko aldiz. Hemen dugu ile-apaintzaileko horietako bat, JOSUNE REPALDA, Arraraskoa.



FREDI LOPEZ

Gizon hau Iruñekoa dugu eta hemen ageri zaigu bere familiarekin. Hirukiak dituzte. Baztango Errugbi taldeko kidea izana da. Oraindik ere harreman handia du alderdi honekin eta horrela, txartel batzuk oparitu zizkion bere izeba batek. Eta han egoki zortea. Txerria hil nahi, baina, txerriak non idortu eta, hor ibili da, atzera eta aurrera. Bere seme-alabak, berriz, terrazan txerritoki bat egin nahi. Azkenean, bizirik joan da zerria.



MAIALEN LARRETXEIA URRUTIA.

Iraizozko alaba, ikasketak egiten ari dena. Aita Arantzakoa du eta ama, berriz, Amaiurkoa. Honena izan da lehen txerria. Izugarri pozik aita eta ama. Maialenekin hizketatzeko aukerarik ez dugu izan baina ziur pozik dela. Ez da gutxigorako.



FERNANDO ERBITI, Donamarian bizi den aritzuarra. Zerri bat egokitu zitzaion.

ZOZKETA EGUNA: Tarrapataka

Azken egunerako dena prest izan nahi eta berriz ere lasterka ibili gara: Zozketa lekua txukundu, esataria segurtatu, irrati konexioa probatu... Den-dena prest izan nahi eta hala ere ezinean askotan. Edo huste gabekoren bat ere suertatzen da beti. Txartel saltzaile baten atzetik azken egunetan eta topatzen ez. Hondarrean jakin genuen Portugalen zela, eta azken egunean igandean bertan etortzekoa zela ikasi genuen. Beharrik! Goizeko hamabietan bere etxera joan eta takoa altxatu genuen.



SARI BEREZIA

Sari berezia. Hona hemen sari berezia egokitu zaiona, Markel Yurramendi, Aizarozko Errotakoa, Joxe Etxarri pastongilearekin batera. Markelek makila serioa hautatu du, ederra. Bazuen ba erabakitzeke lana, baina denak banan-banan ikusi ondoren, ez du dudarik izan. Makila alde batetik, bestetik makila zutik edukitzeko enbor koxkorra eta makilari lotzeko, berriz, otsoa. Puzzle ederra egin du Markelek.

Markel, zer iruditu zaik Joxek duen makila erakusketa?

Oso polita, oso polita.

Espero huen horrelako makila sorta?

Ez, ez nuen horrelakorik espero. Makila asko eta, gainera, oso ederrak.

Eta paston horrekin zer egin behar duk?

Nire logelan jarri, eta noizbait erabili behar bada, erabili.

Aita ere, pozik zego?

Bai, uste dut baietz. Dudarik gabe.



SARI GEHIAGO

120 sari jarri genituen zozketan. Iaz bezala, agintutakoak ez eze, horiek denak eta gehiago zozketatu ditugu, 141 sari banatu baititugu. Ez dugula betetzen inork ezin erran.

SALTZAILE BIZKORRAK

Txartel saltzaile bizkorak baditugu, horietako bat Luis, Berueteko ostalaria, hiru tako saldu baitzizkigu. Bi tako eta hiruen artean, berriz, Apeztegiherri, Mari Puy Arano, Feli Aleman, Amaia Uitz, Josefina Bildarratz, Kizkitza Larrea, Joana Ziganda, Loli Lakuntza, Adur Aleman, eta beste hainbat gehiago. Esker mila. Datorren urtean ere zuen lankidetzaren beharretan izanen gara.



ENEKO MIRANDA

Patxi Miranda eta Leo Espinosa dira Enekoren gurasoak. Aizarotzen bizi dira joan den zazpi urtean. Eneko jolaserako ez baita prest, bere amari galdetu diogu:

Leo, nola izan da Zozketa Mundialean parte hartzea?

Oso ongi, ikusten duzunez. Guk erosi genituen txartel batzuk baina horietan ez zegoen zortetik. Zortea Aiora gure adiskideak erregalatutakoetan zegoen. Bakoitzari txartel bana erregalatu izenak jarrita eta etxeko ttikienari tokatu. Eta zortearen berri ere Aiora eman zigun.

Patxi, kontent Aizarozko aukera egin izanaz.

Bai, oso kontent. Lana ere hemen dut, beste lagun batekin soinu enpresa bat dugu. Gustura bizi gara Aizarotzen.



LEGARRA GAZTATEGIA, ZOZKETAN LAGUNTZAILE

ZERRIAK ONGI ATERA DIRA

Harrigarria bada ere, ia-ia zerri guziak hiltzeko puntuan ibili da aurten jendea. Zortzi sarituak tirriaturik ibili dira azken egunera arte baina hau dela eta beste dela, hondarrean atzera egin dute, eta zozketatu genituen zortzi zerrietatik bat bakarra da hil dutena orain arte. Bizia barkatzea erabaki dute sei lagunek. Zortzigarrena oraindik zalantzan dago, txistor eta txorizo bihurtuko duen hala bizirik mendira igorriko duen.



ZOZKETA MUNDIALA, 2014.

2014ko abenduaren 21ean, Iraizozko Kontzeju batzarre gelan, arratsaldeko 4:30etan, jendaurrean egin zen zozketa. Eta Esan Irratiaren bidez zuzenean transmititu zen.

Hona hemen sarien eta saritu guzien zerrenda.

Zkia	Zozketatu produktua	Nongoa	Zbki S	Saritua Izena	Nongoa
1	Gazta	Berueteko Insalas	21604	Roberto Paskal	Aizarotz
2	Gazta	Oskozko Olaetxea	20536	Mari Jose Arano	Uhartea
3	Gazta	Goldarazko Maiatzenea	10036	Juana Lamarka	Errotz
4	Bazkaria	Juan Simonen Benta	17511	Joxean Larraiotz	Arraitz
5	Erosketa bonoa (20)	Auzako harategia	14006	Karmen Egiazabal Otegi	Goizueta
6	Eztia	Joxe Manuel, Imotz	17556	Maritxu	Arraitz
7	Eztia	Joxe Manuel, Imotz	26659	Patxi Biurrarena	Udabe
8	Eztia	Isabel Telleria, Eltso	13925	Benta Ultzama	Arraitz
9	Ileapaindegirako bonoa	Arrarasko Josune Ileapaindegia	12412	Mixel Olaetxea	Iruñea
10	Gazta taula	Dorrea Gaztandegia. Udabe	21227	Amaia Altube	Narbate
11	Gazta taula	Dorrea Gaztandegia. Udabe	11923	M ^a Karmen Navas Aguirre	Gerendian
12	Belisako 12 kaxa gazta	Belisa, Iraizotz	24080	Mila Goikoetxea	Irurtzun
13	Belisako 12 kaxa gazta	Belisa, Iraizotz	21004	Jose Jabier Aizkorbe	Goizueta
14	Zerria	Nafarroa	17496	Maialen Larretxea Urrutia	Iraizotz
15	Gazta	Oskozko Olaetxea	21623	Pello Aldalur	Zarautz
16	Gazta	Goldarazko Maiatzenea	19780	Guillermo Perez	Etsain
17	Gazta	Berueteko Insalas	13567	Joxemari Berasain Lasarte	Auza
18	Bazkaria	Lanzko ostatua	26608	Birginia Gerendiain	Orokietea
19	Erosketa bonoa (10)	Apeztegiherria denda, Jauntsarats	14200	M ^a Karmen Osinaga	Beruetea
20	Eztia	Joxe Manuel, Imotz	26167	J. A. Garbisu	Muskitz
21	Eztia	Isabel Telleria, Eltso	17492	Arantxa Martinez Urionabarrenetxea	Iraizotz
22	Eztia	Isabel Telleria, Eltso	17916	Enrike Etxandi Serrano	Iraitzoz
23	Gazta taula	Dorrea Gaztandegia. Udabe	20892	Xabi Arroabarren	Iruñea
24	Gazta taula	Dorrea Gaztandegia. Udabe	19087	Roberto Perotxena	Olague
25	Gazta taula	Dorrea Gaztandegia. Udabe	20182	Teresa Txoperena	Iruñea
26	Belisako 12 kaxa gazta	Belisa, Iraizotz	21834	Esther Berro	Latasa
27	Belisako 12 kaxa	Belisa, Iraizotz	20724	M ^a Jose Zazpe	Igoa

Zkia	Zozketatu produktua	Nongoa	Zbki S	Saritua Izena	Nongoa
	gazta				
28	Zerria	Nafarroa	23884	Fredi Lopez Mendiburu	Iruñea
29	Gazta	Goldarazko Maiatzenea	12942	Karol Txurruka	Ziganda
30	Gazta	Berueteko Insalas	12458	M ^a Jesus Goldaratz	Irurtzun
31	Gazta	Oskozko Olaetxea	16751	Josefa Lopez Lopez	Udabe
32	Bazkaria	Laraintzarko ostatua	17652	Jon Ziga Elizaintzin	Lantz
33	Sorta bat esneki	Goshua. Iraizotz	24587	Maialen Ezker	Iruñea
34	Eztia	Joxe Manuel, Imotz	12107	Birginia Iragi	Auza
35	Eztia	Joxe Manuel, Imotz	19849	Mari Aleman	Iruñea
36	Tarta bat	Mentxu Pikabea. Ilarregi	12637	Mari Karmen Mariñelarena Oyartzun	Gaskue
37	Pizza bat	Plazaola Gozotegia. Latasa-Imotz	11612	Iñaki Martinez	Amatriain
38	Gazta taula	Dorrea Gaztandegia. Udabe	18152	Etxeberri Jatetxea	Goldaratz
39	Erosketa bonoa (10)	Apeztegiherria denda, Jauntsarats	25116	Katixa Pons	Etxaleku
40	Belisako 12 kaxa gazta	Belisa, Iraizotz	17611	Jone Larraiotz Navarro	Laraintzar
41	Belisako 12 kaxa gazta	Belisa, Iraizotz	24221	Jose Javier Oitz	Orokietea
42	Zerria	Nafarroa	23107	Joxe Etxeberria	Ezkurra
43	Gazta	Oskozko Olaetxea	11404	Maite Ezkurra Aranburu	Iraitzotz
44	Gazta	Goldarazko Maiatzenea	23752	Elena Ganuza	Igoa
45	Gazta	Berueteko Insalas	14862	Araceli Sanz	Iruñea
46	Bazkaria	Iraizozko Ostatua	17322	Asun Urrutia Juanikotena	Ziga
47	Eztia	Joxe Manuel, Imotz	17589	Benta Miguel	Arraitz
48	Eztia	Isabel Telleria, Eltso	17597	Iñako Zubillaga Auza	Arraitz
49	Eztia	Isabel Telleria, Eltso	23721	Jose Luis Huarte	Igoa
50	Gazta taula	Dorrea Gaztandegia. Udabe	17925	Mikel Zubillaga Navas	Gerendiain
51	Gazta taula	Dorrea Gaztandegia. Udabe	11476	Patxi Larraintzar Ezkurra	Arraitz
52	Pizza bat	Plazaola Gozotegia. Latasa-Imotz	24111	Marian Iribarren	Oskotz
53	Tarta bat	Mentxu Pikabea. Ilarregi	19820	Juan Mari Iraola	Arraitz
54	Belisako 12 kaxa gazta	Belisa, Iraizotz	12926	Migel Anjel Oartzun	Egillor
55	Belisako 12 kaxa gazta	Belisa, Iraizotz	11714	Urko Gastearena Villanueva	Ostiz
56	Zerria	Nafarroa	16715	Miguel Aldatz Ilarregi	Beramendi
57	Gazta	Goldarazko Maiatzenea	11556	Maria Nieves Barcarlos Aramendia	Laraintzar
58	Gazta	Berueteko Insalas	12523	Alfredo Perez	Iruñea
59	Gazta	Oskozko Olaetxea	24673	Aurora Oskotz	Lantz
60	Bazkaria	Aitona	10284	Feli Aleman	Iruñea
61	Eztia	Joxe Manuel, Imotz	19187	Cristina Markotegi	Olague

Zkia	Zozketatu produktua	Nongoa	Zbki S	Saritua Izena	Nongoa
62	Eztia	Joxe Manuel, Imotz	11339	Jose Luis Elkano de Carlos	Ostitz
63	Eztia	Arantxa Puignau, Arraitz	10644	Gaspar Sein	Igantzi
64	Gazta taula	Dorrea Gaztandegia. Udabe	24350	Rafa Larunbe	Aizarotz
65	Gazta taula	Dorrea Gaztandegia. Udabe	26363	Iraitz Gesalaga	Zarautz
66	Belisako 12 kaxa gazta	Belisa, Iraizotz	13898	Resu Mutilba Eguarats	Ostitz
67	Belisako 12 kaxa gazta	Belisa, Iraizotz	16948	Laura Gurbindo	Beramendi
68	Erosketa bonoa (10)	Apeztegiherria denda, Jauntsarats	11393	Juantxo Begino	Ostitz
69	Sorta bat esneki	Goshua. Iraizotz	23963	Emilia Urzainki	Berriozar
70	Zerria	Nafarroa	18910	Fernando Erbiti	Donamaria
71	Gazta	Goldarazko Maiatzenea	23712	Flora Ezkurra	Igoa
72	Gazta	Gorramendi.-Joxe A. Azpiroz	16186	Tiniko Olaetxea	Oskotz
73	Gazta	Gorramendi.-Joxe A. Azpiroz	11382	Pakita Barriola Saralegi	Arre
74	Bazkaria	Gerendiango ostatua	15625	Jaime Fernandez Aranatz	Gaskue
75	Eztia	Isabel Telleria, Eltso	10359	Rosario Erro Arregi	Iruñea
76	Erosketa bonoa (10)	Apeztegiherria denda, Jauntsarats	17809	Ana Urteaga Espinal	Iraizotz
77	Gazta taula	Dorrea Gaztandegia. Udabe	14115	Puri Juanbeltz	Beruete
78	Gazta taula	Dorrea Gaztandegia. Udabe	23741	Pedro Urritza	Igoa
79	Gazta taula	Dorrea Gaztandegia. Udabe	17054	Joseba Oiartzun	Iraizotz
80	Belisako 12 kaxa gazta	Belisa, Iraizotz	26128	Garikoitz Derteano	Leitza
81	Belisako 12 kaxa gazta	Belisa, Iraizotz	14370	Mari Karmen Osinaga	Beruete
82	Ileapaindegirako bonoa	Kristina Ileapaindegia	20988	Periko Martikorena	Igoa
83	Gazta taula	Dorrea Gaztandegia. Udabe	14106	Fernanda Fernandez	Beruete
84	Zerria	Nafarroa	26570	Eneko Miranda	Aizarotz
85	Gazta	Goldarazko Maiatzenea	16482	Katalin Etxarri	Latasa
86	Gazta	Berueteko Insalaz	25588	Asun Igeltz Azpirotz	Auza
87	Gazta	Oskozko Olaetxea	20829	Oskar Barbajero	Iruñea
88	Bazkaria	Ultzamako Benta	12902	Joseba Jimenez	Iruñea
89	Erosketa bonoa (20)	Auzako harategia	22552	Mari Paz Elizondo	Zizur
90	Eztia	Joxe Manuel, Imotz	15106	Juani???	Atarrabia
91	Eztia	Isabel Telleria, Eltso	25195	Isabel Aleman	Etxaleku
92	Eztia	Arantxa Puignau, Arraitz	16223	Marino Goñi Oloritz	Eraso
93	Gazta taula	Dorrea Gaztandegia.	16201	Maria Trinidad Benitez	Berriozar

Zkia	Zozketatu produktua	Nongoa	Zbki S	Saritua Izena	Nongoa
		Udabe			
94	Gazta taula	Dorrea Gaztandegia. Udabe	25476	Juan Aleman	Etxaleku
95	Sorta bat esneki	Goshua. Iraizotz	13119	Geno Etxart Lizaso	Iraizotz
96	Belisako 12 kaxa gazta	Belisa, Iraizotz	11287	Mirari Larraiotz Arregi	Eltzaburu
97	Belisako 12 kaxa gazta	Belisa, Iraizotz	21519	Javier Zabala	Goizueta
98	Zerria	Zerri berezia. ARRARATS	24506	Itziar Calderon	Iruñea
99	Gazta	Oskozko Olaetxea	21561	Idoia Lizarribar	Hernani
100	Gazta	Berueteko Insalaz	17121	Cirilo Orotz Abentin	Anotzibar
101	Bazkaria	Goldarazko Etxeberri	23031	Jon Patxi Okiñena	Etxaleku
102	Bazkaria	Igoako Ostatua	26858	Belen Lahuerta	Iruñea
103	Erosketa bonoa (10)	Apeztegiherria denda, Jauntsarats	25126	Loli Aleman	Etxaleku
104	Eztia	Joxe Manuel, Imotz	16982	Mari Mar Ansorena	Itsaso
105	Eztia	Isabel Telleria, Eltso	17046	Marisol Billabona Balda	Iraizotz
106	Sorta bat esneki	Postres Tradicionales de Ultzama	21096	Amaia Uitz	Goizueta
107	Eztia	Arantxa Puignau, Arraitz	26252	Teresita Erasquin	Eraso
108	Ileapaindegirako bonoa	Ileapaindegiko produktuak	20026	Julian Arregi	Igoa
109	Gazta taula	Dorrea Gaztandegia. Udabe	16626	Eva Ocio	Irurtzun
110	Gazta taula	Dorrea Gaztandegia. Udabe	13006	Sagrario Goñi Ibero	Alkotz
111	Belisako 12 kaxa gazta	Belisa, Iraizotz	20822	Iruñe Ariztegi	Ituren
112	Zerria	Zerri berezia. ARRARATS	20678	Antonio Miguel Sanabria	Igoa
113	Eztia	Isabel Telleria, Eltso	15712	Esteban	
114	Eztia	Isabel Telleria, Eltso	13036	Patxi Iribarren Altuna	Suarbe
115	Eztia	Arantxa Puignau, Arraitz	25469	Juan Aleman	Etxaleku
116	Bazkaria	Aizarozko Ostatua	23493	Gibrán Arbilla	Obanos
117	Bazkaria	Arreizko Ostatua	18161	Etxeberri Jatetxea	Goldaratz
118	Gazta taula	Dorrea Gaztandegia. Udabe	23006	Pello Gorraitz	Etxaleku
119	Gazta taula	Dorrea Gaztandegia. Udabe	15283	Josu Bilain Alano	
120	Sorta bat esneki	Postres Tradicionales de Ultzama	13572	Karmen Larraintzar Ripa	Auza
121	Ileapaindegirako bonoa	Ileapaindegi baterako bonoa	22248	Jose Luis Larratza	Etxauri
122	Auto gidatzeko erakustaldia	Jabi Barbajero	10072	Iñigo Kanpos	Ormaiztegi
123	Zeramika pieza bat	Marisol Melero. Arraitz	26292	Ramón Carpintero	Aibar

FELIX ALZELAI, EUSKARA TEKNIKARIA

“Udalek bere hizkuntza politika definitu behar dute”

Aurten lehen euskara zerbitzuak sortu zireneko 25. urteurrena betetzen da. Nolako ibilbidea izan dute?

Dakizuen bezala, Euskararen Legea 1986an onartu zuen Nafarroako Gobernuak. Hasiera hartan, Nafarroako Gobernuak hitzarmen bat sinatu zuen euskara zerbitzua zuten udalekin diruz laguntzeko eta zerbitzu berriak sortzeko. Udal eta mankomunitateen artean gaur egun 26 zerbitzu inguru dago. Zerbitzu berriak joan dira sortuz, beraz; eta, paradoxikoa badirudi ere, zerbitzu gehiago sortu ahala, Gobernuaren diru-laguntza gutxituz joan da; izan ere, 2005. urtean, oraindik krisia pentsaezina zen hartan, diru-laguntza horiek erdira jaitsi ziren. Gaur egun, % 10era ere ez dira iristen, eta udalek hartu behar izan dute bere gain zerbitzu horien kostu ia osoa.

Zein da zuen egitekoa, eta zer ekimen eta jarduera egiten dituzue zuen helburua lortzeko?

Hitz gutxitan esateko, gure helburua da euskararen erabilera normalizatzea. Ez dakit noraino jabetzen diren horretaz, baina udalek bere hizkuntza politika definitu behar dute; alde ho-

rretatik, euskara zerbitzua udalen tresna da hizkuntza politika hori gauzatzen saiatzeko. Gure egitekoa da, beraz, gizartean gero eta euskaldun gehiago sortzea eta erabilera gizarteko funtzio eta espazio guztietara zabaltzea, abian jartzen ditugun ekimen eta antolatzen ditugun jardueren bitartez. Hala ere, argi daukagu gizarteak izan behar duela beti euskara berreskuratzeko motora.

Hogeita bost urteko ibilbidean, zein izan dira zure ustez alde positiboak eta negatiboak?

Aurreko erantzunaren harira, gizartean faktore anitzek eragiten dute, eta ez da joaten beti nahiko genukeen bidetik. Duela urte gutxi arte eskualde honetan euskara nagusi izan da, baina hizkuntza ordezkapena aspaldi hasia da eta, orain, luzea eta neketsua izan den prozesu horri buelta eman eta euskara berreskuratzeko bidean jartzea. Alde horretatik, alde negatibo bat aipatzeagatik, nik nabarmenduko nuke hemengo euskaldun eta erdaldun frankok euskarari buruz duten pertzepzio negatiboa; mendeetan belaualdiz belaualdi transmititzen zen hizkuntza bakarra izan da, inork zalantzan jartzen ez zuen; eta, bat-batean, beste hizkuntza bat sartu zen, neurri handi batean indarrez inposatuta, eta jende anitzendako euskara berezko hizkuntza izatetik deusetarako balio ez duen hizkuntza izatera pasatu da. Euskaldun peto-peto batzuek ere uste dute, gainera, euskaraz ez dakitela, haien euskara polit eta aberatsa “euskara txarra dela” edo gaizki erabiltzen dutela.

Eta positiboak...

Bistan da euskarak betidanik itxirik izan dituen ate asko zabaldu dituela mende erdi eskas batean. Horietatik aipagarriena beharbada irakaskuntza da. Bailara hauetako ia haur guztiek euskaraz ikasten dute. Horrek esan nahi du, honela segituz gero, une bat ailegatuko dela non gizarte ia osoa elebiduna izanen den. Hizkuntza bat erabili edo bestea erabili, ezin izanen da inor ezjakintasunean oinarritu besteari hizkuntza inposatzeko, orain gertatzen den bezala. Denek jakinen dituzte bi hizkuntzak eta denek izanen dute aukera hizkuntza bat, bestea edo biak erabiltzeko ahoz eta idatziz solaskidearen edo hartzailearen ariora. Horrek, dudarik gabe, oraingo arazo sozial franko konponduko ditu.



Zkia	Zozketatu produktua	Nongoa	Zbki S	Saritua Izena	Nongoa
124	Zurezko pieza bat	Angel Beunza. Gerendiain	25519	Inazio Zia Sala	Auza
125	Liburu sorta	Ametza	11928	Migel Anjel Etxandi Serrano	Iraizotz
126	Liburu sorta	Ametza	22100	Jesus A. Blanco	Atarrabia
127	Liburu sorta	Ametza	23595	Lorena Azpilgain	Orendain
128	Liburu sorta	Ametza	10613	Jose Martin	Irura
129	Liburu sorta	Ametza	19819	Juan Mari Iraola	Arraitz
130	Liburu sorta	Ametza	23134	Mikel Irigoien	Etxaleku
131	Liburu sorta	Ametza	18029	Isabel Ilarregi	Itsaso
132	Liburu sorta	Ametza	22288	Gorka Iriarte	Txantrea
133	Liburu sorta	Ametza	13163	Arantxa Ansa	Oiartzun
134	ge	Ametza	18242	Eider Arbizu	Antsoain
135	Liburu sorta	Ametza	10328	Maite de Carlos	Iruñea
136	Liburu sorta	Ametza	13058	Juan Ignazio Alvarez Agirre	Olague
137	Liburu sorta	Ametza	21936	Pello Osinaga	Ihaben
138	Sorpresa	Ametza	12550	Maite Garralda	Iraizotz
139	Mitxelinak jaisteko tresna	Itziar Mariezkurrena	26225	Juani Barriola	Leitza
140	Lorategirako onddo beltza	Itziar Mariezkurrena	26394	Imanol Arruabarrena	Aia
141	Sari berezia - makila	Jose Etxarri Barberena. BERUETE	21756	Markel Yurramendi	Aizarotz

Basandereok ipuin ez sexistak argitaratuko ditu euskaraz

Txanogorritxo Otso Ttikia eta Edurnezuri eta 7 Estralurtarrak ipuinak laster salgai

Bazen behin bailara txiki bat, bailara menditsu eta bakarti bat, neguan hotz eta udan bero egiten duen horietakoa, udaberrian heze dagoen eta udazkenean gaztainak eta ondoak hartzen diren horietakoa. Osó bailara polita zen, eta bertan umé asko zegoen. Guztiok dakigun bezala, umeeek, beste gauza batzuen artean, ipuinak irakurtzea gustuko dute. Bailara horretan emakume talde borrokalari bat zegoen: Basandereok zuen izena talde horrek, eta ekimen asko ateratzen zuten aurrera; emakumeen eskubideen aldeko mobilizazioak, urteroko egutegia... Eta aurten, ipuin ez sexistak batzuk argitaratuko dituzte laster batean. “Hilabete luze eman genuen pentsatzen proiektu honen inguruan”, kontatzen digu taldeko lagun batek, argitalpenaren oinarria euskarazko ipuin ez-sexistak aurkitzea oso zaila dela eta, emakume talde

honek aurrerapausoa eman eta aukeratutako ipuin pare bat Eguberrietarako zabaltzea erabaki zuen: “aurretik idatzitako ipuinak aukeratu, idazleei baimena eskatu, euskaratu, eta inprimategira bidaltzea” prozesu luzea izan bada ere, “pozik” agertu dira.

Marisa Rebolledo eta Susana Ginesta dira ipuin hauen sortzaileak. Basandereok taldearen ideia da ipuinak bailaran hedatzea; halere, eskualdeko beste bailararen batetik interesa adierazten badute beste edizioen bat egin daiteke. Bukatzeko, talde honetatik adierazi dute liburuak barnean “sorpresa” polit bat ekarriko dutela eta bestetik irabazteko asmorik ez dutela.

Urtero ateratzen duten egutegia ere egun hauetan banatuko da!

Danonen hertsitzea: 1994. eta 1995. urteak

Esne industria batek, mundu mailan inportanteenetako batek, fabrika bat jarri zuen Ultzaman. DANONE zeritzan. Toki egokia, lekua, ura, mugatik hurbil, esne biltzearen zati handi bat hemen bertan egiten zuena, eta inguruko herritoeetan jende langilea, lanerako prest. 1966-1967. urteetan jarri zuen. Nola eta zergatik, xehekiago Jose Maria Iribarren Ultzamako idazkari izandakoak kontatu zigun Pulunpen, 2011ko martxoan, 96. zenbakian.



langile ohi batek:

-Orduan, hainbeste urte fabrikan pasa eta, hainbeste hobekuntza gure eskubideetan erdietsi eta... Gainera, badakizu? Orduan Danoneko langile izatea lujo bat zen. Sozialki ongi ginen, oporrak nahi genituenean hartzeko erraztasunak, zubiak...Eta soldata kontutan hartzen badugu, ez ginen batere gaizki. Bai, baziren gu baino hobeak zituztenak, eman dezagun Metal Convenio zutenak eta beste bakarren batzuk. Baina gero gu ginen.

Gainera gure lana, eroso samarra zen, dena informatizatua, fabrikan soina ere kontrolatua zegoen.

Gero autobusa ere bagenuen.

Bai, bai, lan kalitatea, ona. Ez ginen kexatzekotan.

Hori dena, egun batetik bestera pikutara joan zen.

Orain beteko ditu 20 urte.

Segituko dugu kontatzen.

300 langile izateraino iritsia zen. Langile gehienak inguruko ibarretakoak eta gainerakoak Iruñerrikoak. Gizon eta emakume lanean.

Fabrika bete-bete lanean, egunean jarria, informatizatua, azken puntako aurrerapen guziekin. Irabaziak urtero...

1994. urtearen azaroa zen. Nork asma zezakeen fabrika hura herstekeko puntuan zegoela? Ez eta eroenak ere!

Nola sinetsiko zuten bada, 1994. urtean berian, beren langileendako bidai bat zozketatu bazuen, Estatu Batuetara joateko? Mezkirizko bati egokitu zitzaion.

Hiru txandatarari ari ziren lanean, eta goiz batez, lanetik ateratzekotan zirenak eta hurrengo txandakoak sartzekotan zirenak bildu eta hala, hotz hotzean, non esaten dieten:

- Zuzendaritzak moldaketa bat egin behar du, Espainian dituen fabrika guztien errestrukturazioa egin behar du, eta hau berezi eta hautatu du kentzea.

Zortziko lurrikara bezalakoak izan zen langile haien bihotzetan, ezin sinetsia. Eta ez zuten sinetsiko gainera. Hurrengo urtean hertsiko zutela eta handik hilabete batera, oraindik ere ez zuten sinesten ahal.

Hala esan digu bertan ari zen langile batek:

-Nik ez nuen sinesten, ez nuen ontzat ematen... azken egunera arte. Makinak ateratzen ikusi nuenan sinetsi nuen. Negar egin nuen.

Nahigabea izugarria izan zen. Orduko bizitzari agur esan behar izan zioten. Hala esan digu beste



Pulunpe aldizkariaren 8. alearen azala

Etxalekuko etxeak 1727. urtean

Etxeen izenez eta bertan bizi izan direnez zerbaitekin kontatu nahi genuke. Zenbait datu hona ekarri, denok zertxobait jakiteko. Gaurkoan, Etxalekuko etxeen izenak emanen ditugu. Eta beste xehetasunen bat, ez besterik. Hona hemen, 1727an egin zuten kontaktetan edo apeoan ageri diren etxejabeak eta zenbait maistar. Jarri ditugun etxe guztiak auzo ziren. Bezindadea zuten. Bezindadea ez zuten etxe koxkor batzuk ere baziren. Etxalekun bezindadea edo auzotasuna zutenak etxeak 23 ziren. Hona, hurrenkeran, hogeita hiruak:



- 1.-Ernautena: Pedro de Urriza. Urte hartan Oskoztik Etxalekura zen Errege bidean (Camino Real) lehena (Haurretik Etxeberria zen, baina hau Ernatonearen maistarretxea zen)
- 2.-Marimiguelena: Esteban de Gazttelu (Notarioa)
- 3.-Iturricoa: Miguel de Urriza.
- 4.-Dorretoa. Pablo Urriza.
- 5.-Arozteguizarra, Antonio Balerdi, Miguel de Herviti-ren ondorengoen maistar.
- 6.-Miquelena: Juanes de Bengoechea
- 7.-Merijuanena: Juan de Herviti
- 8.-Juan Lopizena: Miguel de Aldaz, Etxandikoen maistar.
- 9.-Mocorroa: Lope de Herviti
- 10.-Jurdanena: Juan de Auza, Marimigelenekoen maistar.
- 11.-Arozena: Ambrosio de Echeberria
- 12.-Echandia: Juan de Aldaz y Echandia.
- 13.-Zapattagiñena: Fernando de Herviti
- 14.-Gazttelurena, Francisco de Urriza, Miguel de Aldaz-en maistar (Herriko apezka eta Etxandikoen semea zena)
- 15.-Miquelechorena: Juan de Veraza
- 16.-Arguiñena: Juan de Auza
- 17.-Rebechena: Miguel de Urriza.
- 18.-Domecarena: Juan de Urriza.
- 19.-Miguelchorena: Miguel de Herviti
- 20.-Beltranena, Miguel de Oscoz, maistar Pedro de Aldaz-ena.
- 21.-Miquelena: Juan de Herviti.
- 22.-Zamarguiñena. Miguel de Oroquieta, maistar Maria de Leyza-rena, Iruñean bizi zena.
- 23.-Apezena: Juanes de Echeberria.

ORAIN HONELAXE DEITZEN DIEGU:

Ernatonea:

Marimigelenea eta Txurdanea, aurrekoarena zena. Hau herriko Plazan.

Iturrikoa. Iturriaren aldamenen.

Dorrotozarrea.

Mikelenea.

Marijuanea.

Mokorroa.

Etxandia eta Jualpitzenea (Etxandikoen zena eta maistarra zeukaten) Eta, gainera, Gaztelunea.

Zapatagiñena edo Zapatiñena.

Mikeltxenea.

Argiñena. Hargin batek egina.

Migelenea.

Apezenea.

GEROZTIK DESAGERTU DIRENAK

Arozteguizarra, Dorrotozarrearen kontra zena eta **Arotzenea**, plazako frontisa den tokian, biak XIX mendean suntsituak. **Erreuxenea**, errebes zena

batek egina, paper zaharretan hala ikusi izan dut, Errebesena, alegia. Orain Mikeltxenea eta biak bat egiten dute (XX mendea). **Domikenea** (XX. mendean bigarren erdian sute batek kiskalia)

Miltxenea, (XX. mendean bigarren erdian eroria) **Beltranezarrea** orain Migeleneari itsasia, etxe bat egiten dute. 1793. urtean egin zuten Beltraneberria. **Zamargiñena**, Migelenearen atzeko aldean zegoena XIX. mendean suntsitua.

OHARRA.-Ahoz, BeltranEA edo horrelako guztiak BeltranIA eta horrela esaten ditugu, baino ahoz. Idazterakoan -EA erabili behar da.

Iker Isiegas, Aizarozko bizilaguna eta Hatortxu jaialdiko antolatzailea

“Edizio bakoitzean autokritika egiten dugu eta gure buruarekin gogor izaten saiatzen gara”



Urteko azken eskola egunean, Iker eta Nare alaba

Askotan egiten duzu lan Apeztegerri tabernan bertan, nolatan?

Bai, giro bikaina dago eta kafea ezin hobea da.

Lan handia hartzen al du holako jaialdi bat antolatzeak?

Ikaragarria, jaialdia egiten den egunean 400 boluntario inguruk egiten dute posible HTX aurrera ateratzea, horien artean gure bailaretako bizilagun asko.

Nola sortu zen ekimen hau?

Bi kezka genituen lagun talde bat elkartu ginen. Batetik, dispertsio politikak euskal preso politiko eta hauen senide eta lagunengan dituen ondorioen ardua eta, bestetik, Iruñerrian ezaugarri hauek dituen jaialdi musikalen falta.

Nola antolatzen zarete?

Hatortxun lantalde eta erritmo ezberdinak daude, orokorrean uda amaiera arte lan erritmo baxua eramaten da. Irailetik aurrera lan maila areagotuz joaten da, jaialdiaren asteburura iritsi arte.

Zer azpimarratuko zenuke aurtengo edizioaz?

Alde batetik, etorkizunera begira egiten den apustu musikala “Aspencat” bezalako talde batekin; beren etxean, pais Valencián, arrakasta ikaragarria izaten ari dira, “O’Brint Pass”en erreleboa hartuta milaka jarraitzaile dituzte, baina Euskal Herrian oraindik ez dira oso ezagunak. Bestetik, ostiralean “Libre” dinamikaren barnean antolatuta epaiketa politikoetan auziperatuen alde dauden afaria eta Kantuza, azpimarratuko nituzke.

Jaialdia hain handia izatean, zein da gauzarik zailena antolatzen?

Segur aski, azpiegituren planifikazioa eta muntaia, 17 edizio hauetan leku finko bat ez izateak buruhauste bat baino gehiago eragin du, baina azken urte hauetan jaialdia Atarrabian finkatu dela ematen du, eskerrak ematen dizkiegu Atarrabiako udaletxe zein bizilagunei haien harrera onarengatik.

Urte dezente daramazue antolakuntzan; eboluzionatu da asko, modernizatu da?

Eboluzioa eta garapena jarraian izan dira, baina jasotako esperientzia azpimarratuko nuke nik. Hatortxuko langile guztiak boluntarioak garela kontuan hartuta, emaitza ezin hobea dela esan genezake. Gurekin lan egiten duten talde zein enpresa desberdinei, jaialdia amaitzean, kritika konstruktiboak egitea eskatzen dizkiegu, aurrerakoetan beti hobera joateko joera izateko. Guzti honekin ez dut egiten dugun guztia ongi egiten dugunik esan nahi, ezta gutxiago ere. Edizio bakoitzean autokritika egiten dugu eta gure buruarekin gogor izaten saiatzen gara. Modernizazioaren adibideen artean berogailu sistema, informatikoki kontrolatutako sarrera edo online bidez egindako sarreraren salmenta azpimarratuko nituzke.

Beste zerbait esan nahi?

Bai, ideia bat datozen urteei begira, Euskal Herriko beste eskualde batzuetan egiten den bezala gure bailaretatik aterako diren autobusak antolatzea, Hatortxura publiko nahiz boluntario gisa gerturatu nahi duten guztiak garraioaren arazoa izan ez dezaten.

Emakume eta gizonen arteko berdintasuna: “In-pactos” proiektua



In-pactos proposamen bat da, modu parte-hartzaile batez, eskualde bakoitzean lantzen ari diren proiektuak eraldatu eta zaintza-lanen etika eraiki eta garatzeko praktika berritzaile bihurtzeko. Asmoa da, gainera, praktika berritzaile horiek edozein lurraldetan aplikatzeko modukoak izatea, baita horiek ezagutarazi eta zabaltzeko aukera ematea ere.



Ultzamako Eskualdeko Hitzarmena azaroaren 27an bildu zen eta adostasunez erabaki zuen Antzerkiaren bidez Erantzunkidetasuna lantzeko Tailerra aurkeztea eskualdeko hautagai gisa. Tailer horiek eskualdeko eskola publikoetako lehen hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleendako dira, eta Erantzunkidetasunaz eta eginkizunen berdintasunezko banaketaz sentsibilizatzea dute helburu. Antzerkia eta joko eszenikoa prestakuntzarako tresna gisa erabiltzen dituzte, beste pertsona baten larruan jartzeko aukera ematen baitute. Hogei saiok osatzen dute tailerra. Tailerra bukatutakoan, ikasleek antzezlanaren prestakuntza dute ikastetxean berean antzezteko bailarako kultur egitarauaren barnean.



Irudietan: Basaburuko partehartzaileak antzerkia hasi baino lehen, Iñigo irakaslea eta Larraintzarren egindako antzezlanaren momentu bat.

Nafarroan aurkeztu diren beste hautagai aipagarri batzuk:

Antsoain: Gizarte Erantzukidetasun taldea

Tokiko talde anitz eta aktiboa da, gizarte zibilaren ahalmenak indartzeko asmoarekin sortua, eta politika publikoei exijitzen diete haien helburu estrategikoa pertsonen eta naturaren zaintza izan dadila. Talde horren asmoa da “ciudadania” kontzeptutik “cuidadania” kontzepturako bilakaera sustatzea.

Fustiñana: Belaunaldi desberdinek elkarren artean trukatzeko teknologia berriei eta bizirik irauteko teknikei buruzko ezagutzak.

Belaunaldien arteko esperientzia trukea da, hau da, helduek gazteei pertsona autonomo eta independente izaten animatu eta erakustea (patata-tortila, bufandak... egiten) eta gazteek teknologia berriei duten ezagutza transmititzea teknologia

horiek gutxiago erabiltzen dituzten pertsonen (internet erabiltzen erakustea eguraldiaren iragarpena jakiteko, egunkari eta aldizkariak irakurtzeko, bidaiak antolatzeke...).

Los Arcos eskualdea: Adiskide guneak, batzeko guneak. Atsedenaldi proiektua

Etxeokak zaindu behar dituztenei atsedenaldea emateko zerbitzua da. Profesional batek zaintzalanak egiten dizkie behar bezala koordinaturik aurrez adostutako une zehatzetan. Helburu nagusia da zaintzaileen osasuna eta bizi kalitatea hobetzea, eta ahal den neurrian zaindutako pertsonaren autonomia eta gaitasun fisiko zein psikikoak sustatzea. Gizarte laguntzako zerbitzu hau eskaintzen da zaintzaileak atsedena hartu aisialdiaz gozatu eta bizitza soziala egin dezan.



Pixko bat zozoa eta krixton polita

Aurreko bi esaldi horietatik bat bakarra ere ez da euskara. Eta ez du euskaraz asko jakin beharrik zapo-euskara, basa-euskara, euskañola edo, zabor hutsa direla esateko.

Eta zenbat aldiz ez dugu entzuten pixkoa't erge-la eta horrelakoak? Lehen ere aipatu izan dut, euskaraz txikigarriak egiteko, zozotxa edo zozotxa, zozo samarra, zozoxkoa, zozo antza...direla; eta hitza bustiz egiten ahal dugula, kasu honetan xoxoa.....esaten dela. Bai, esanen duzu, horiek denak ez dira berdin berdinak. Bai, hala da, bakoitza bere kasuan ibili behar da, baina guzi horiek paperontzira bota eta hara zer sortu zaigun, erdal kalkoa besterik ez dena, pixkoa't ergela, pixko bat handie, edo, harrigarriago oraindik, pixko'at haurdun, lehengoan entzun nuen bezala. Txikigarriak modu bakar batera ibili eta hura okerra eta antzua. Eta oso polita, izugarri ergela, ikaragarri alua, erabat gaiztoa esateko? Ba, hona zenbaitzuen asmazioa: kristoren polita edo kriston polita, azken hau euskaldun zaharrok hizketarakoan erabiltzen dugunaren kopia okerra. Taberna zuloan, hizketa zakar batean ari garenean esaten dugu edo dute zenbaitzuk, krixton gizona yun, krixton arbola bota ziten eta horrelakoak, baina krixton politte, krixton handie da eta horrelakoak ez inola ere. Goizaldeko ordu ttikietan ere, belarriak min egiten digu horre-

lakoak entzutean, baita zepeldurik baldin bagaude ere. Azalpen handiagorik ez dela behar uste dut. Entendatu ez duenak irakur beza bigarren aldiz eta ulertuko du.

Baina zer esan irratietan eta telebistan entzuten dugunean, jatorrismo alu baten ispilu izan nahi dutenen ahoan, kriston gizona zen edo kriston arbola bota zuten, bezalako esaldiak?

Nahasten dute euskalkia batuarekin, eta askoz ere okerrago dena, taberna zokoko euskara edo zenbait lagunarte berezietako hizkera zakar antzekoa daramate hedabideetara. Herritarkeria, zabarkeria... jatorra balitz bezala. Eta gainera, beren pedanteria besterik ez dute erakusten jator mintzatzun direla uste duten horiek. Herri euskaraz ez dute besterik jakinen, ikasteko hainbeste dagoenean, eta hori erabili behar erabili behar ez den tokietan. Hizkera bakoitzak -eta hizkera asko dira- badu bere tokia, bere lagunartea, bere plaza. Jakina, dirudienek behintzat, ez dira ohartu ere egin hamaika hizkera daudela euskaran, hizkuntza guzietan bezala, eta hizkera bakoitza bere tokian eta tenorean erabili behar dela.

Horrelakorik ez da inoiz ikusten erdal irrati eta telebistetan.

Hau da hau, calamitatis et miseriae! Ardo frexkoa beharrean, ozipina gaurkoan.

ALBERTA ETA PATXI, KAAÑO BASETXEKOAK

“Turismoa, gure iritziz, duzuna banatzea da”

Hamarkada bat baino gehiago daramate Arrarasko mendiko etxean bizitzen. Basetxea ogibidetzat hartu zuten, baina irizpide oso bereziak kontuan hartuta. Kanpoan oihartzuna izan duen proiektu honek begirada eskualdean jartzen du batez ere. Ongi etorri izan zaitez Kaaño etxera!

Zer da Kaaño etxea?

Basetxe ekologikoa da, eta geobiologia, bioklimatika, feng-shui eta energia berriztagarriak kontuan hartzen ditu. Irla bat gara, besteak beste, argindar sare orokorretik deskonektatuta gaudelako. 2002. urtean hasi ginen proiektuarekin. Hasiera batean gure etxea izan behar zuen bakarrik, baina denboraren poderioz basetxea ere izan ahal zela erabaki genuen. Proiektua aurrera eramaten hasi ginelanean, bizi egoera aldatu eta buru-belarri sartu ginen eraikina ere basetxe bihurtzeko; hemen lan egitea zen helburua. 2004. urtean ireki genuen etxea eta orain arte pozik gaude egiten dugun lanarekin; bizimodu eta filosofia jakin batekin egiten dugulako lan. Kanpoaldean erantzun handia izan du betidanik gure proiektuak.

Zuen iritziz, zer bide hartu beharko luke hemengo turismoak?

Orokorrean, jendeak gero eta kontzientzia argiagoa du, aldaketa klimatikoari eta turismo arduratsua egiteari garrantzi handiagoa ematen baitie. Paradisu bat bada ere, argi dago turismoa ez dela lehentasuna Basaburuan. Esan beharra dago zenbait ekimen interesgarri aurrera atera direla; xenda bideen sarea konpondu, pasaguneak jarri, ibaietako igerilekuak...

plan orokor bat primeran etorriko litzaiguke. Turismoa, gurea elkarbanatzea da. Aukera berriak sortzen ari dira.“Eurovelo” proiektua da horren adibidea; bizikleta bide erraldoi bat eraikiko da Europa mailan; Basaburutik pasatuko da Doneztebe eta Saratsa lotuko dituen konexio batetik. Gure ustez alderdi guzti horietan sostengarritasuna eta erantzukizuna dira hitz klabeak proiektuak aurrera ateratzeko. Baztan, Aralar eta kostaldea bezalako zonaldeekin alderatuta ikusten dugu oraindik asko dagoela egiteko, nahiz eta mugimendu positiboak sumatu. Normala den bezala, gurean gosari eta afariak ematen ditugu eta bitartean bezero asko gonbidatzen ditugu zonaldeko ekimen interesgarrietara: jatetxeak, denda, gaztandegiak, bideak ... nolabait zonaldean mugimendua egotea sustatzen dugu.

Hasiera-hasieratik hedabideek zuen proiektuaren jarraipena egin dute, ezta?

Asko izan dira hemendik pasatu diren komunikabideak: El Diario Vasco, Antena 3, El País, diario Noticias, 5 Días, Telenavarra, ETB... Jarraipen horrekin lotuta, jende asko etortzen zaigu “wwoofing” deitutakoa garatzea. WWOOF (ingelesezko siglak dira; Mundu Osoko Basetxe Ekologikoen Sarea) sarea zera da: lanaren truke, mundu osoko baserrietan lo egiteko aukera. Euskal Herriko lurralde guzietan ditugu sarean parte hartzen ari diren baserri eta etxaldeak. Gurera askotan etortzen dira mundu zabaleko gazteak lan egitera eta elkarrekin bizitzera; ikasten dute, zonaldea ezagutzen dute eta hizkuntza ere lantzen dute. Oso lagun politak egin ditugu honen bidez!

Iruñeko harresietan pankarta erraldoia, orain berriki, ETB3ren alde.



Gure historia, irudiz kontatua

“Historiaurretik Erromanizaziora. Euskal Herriko historia ilustratua” liburua argitaratu dute

Marrazki bikainak eta gure historiako pasarteak batzea ez da lan xamurra; hala ere, egin duten lana ikusgarria da. Martin

Altzueta ilustratzaileak Joseba Asiron historialariaren laguntza izan du pertsonaiak eta gertaerak sortzeko. Bi iruindar hauek aspaldi lan egiten dute elkarrekin, eta haien asmoa horrela jarraitzea da: “Liburua beste hiru libururekiko bilduma baten hasiera da. Bigarren liburukia ere bukatua dugu”, horrela esaten zuen egileak Berriari eskainitako elkarrizketa batean. Gabon garai kontsumista honetan, liburu honek gure historia kontatzeko beste

Martin Altzueta eta Joseba Asironen lana Txalapartak kaleratu du.

aukera bat ematen digu, “ezagutu behar genituzkeen datuak” ageri direlako eta baita marrazki errealistak dituelako ere. Arro azaldu da ilustratzailea egingadako lanaz, Euskal Herriko ikonografia bat ez dagoenez, berri bat sortzen ari direlako. “Arrasto bat uzten ari gara”. Oso gomendagarria.



Joseba Asiron • Martin Altzueta

De la Prehistoria a la Romanización

HISTORIA ILUSTRADA DE EUSKAL HERRIA

txalaparta



Braulio Biurrarena, Udabeko bizilaguna eta arrautza ekologikoen ekoizlea

“Gaur egun, ekoizten dudan guztia saltzen ari naiz”



Nola sartu zinen mundu honetan?

Askori bezala gertatu zitzaidan, langabezian geratu nintzela. 20 urtez Eltzaburuko harrobian lan egin ondoren eta eraikuntza sektorearen gainbeheraren ondoren, kale gorrian ikusi nuen nire burua. Urte betez lana bilatzen aritu eta ezer ez aurkituta nire kabuz zerbait egitea pentsatu nuen. Arrautza ekologikoen ekoizpena izan zen nire aukera.

Nolatan horri?

Aldizkari batean irakurri nuen oiloak modu ekologikoan hezten zituen tipo baten kasua. Nafarroan bakarra edo bakanetakoa zen bera momentu horretan. Interesgarria iruditu zitzaidan, baina ez nuen lurrik. Kontzejuari laguntza eskatu eta herri-lur hau utzi zidaten; zuhaitzak eta aldapa izatean oso aproposa da nire helburuak betetzeko.

Nolatan ekologikoak?

Berezia den zerbait bilatu behar da, beste motako oiloak edonon aurkitzen ahal baitira. Besteen lan egiteko moduarekin ezin da lehiatu. Nafarroan momentuz 7 ekoizle besterik ez dago. Proiektua hasten duzunean gero ezin gelditu! Paper guztiak bete, baimenak... Momentuz pozik nago, urte eta erdi aritu naiz proiektua sortzen eta duela bi hilabete eskas oiloak ekarri nituen. Gazteak badira ere, gehienak hasiak dira dagoeneko arrautzak erruten. Halere, lehenengo sei asteetan ezin produktua saldu, kanpotik etorri direnez, girotu behar direlako.

Zer lekutan saltzen dituzu arrautzak?

Eskualde honetan biztanle gehienek beraienak dituztenez, Iruñean saltzen ditut gehienak: Landare kooperatibak eta zenbait harategik erosten dizkidate. Gaur egun ekoizten dudan guztia saltzen ari naiz. Gutxika ikasten duzu produktua non kokatu behar den; EHNE sindikatuko laguntzaz, ekoizleen kontaktu sarea eginez...


Zer abantaila eta arazo ditu lan honek?

Etetik hurbil egiten dut lan, eta ordutegi finkorik gabe. Bestetik, lan eramangarria da hau; egunean ordu gutxi eskatzen ditu eta. Astean pare bat egun banaketa egiteko, eta listo! Pozik nago. Desabantailen aldetik, arrautzak non saldu ez jakiteak eragiten zidan beldurrik handiena; kontuan hartu behar da 28 egun mantentzen direla eta lehenago saldu behar dituzula. “Arrautzak pilatzen hasten bazaizkit, akabo!” pentsatzen nuen lehen, baina momentuz arazorik ez.

BRAULIOREN ARRAUTZAK JAUNTSARASKO APEZTEGIBERRIN AURKITZEN AHAL DITUZU.

ZORIONAK ZUEI!

IRAI



Ugaitz eta Enare



GARAZI



Ilargi



AURITZ



ARAITZ



MADDI

EUSKAL ZERRIA

Zalantzarik gabe hilabete honetan protagonistā argia du aldizkariak. Ametza Elkartearen Zozketa Mundiala dela eta, matraka ematen daramagu denbora dezente, zerriak gora eta behera.

Baina ba al zenekien berezko arraza dagoela hemen? Eta horretaz gain, ba al zenekien Euskal Zerria desagertzeaz dagoela? Irurtzunen irailaren erdialdean antolatu zuten azoka. Bertan, besteak beste, zonaldeko arrazen egoeren berri eman zuten. Nafarroako Gobernuak desagertzeko zorian diren hiru abere arraza berriak onartuko ditu ofizialki eta horietan aurkeztu zituzten Irurtzunen: Pirinioetako ahuntza (855 buru Nafarroan), Pottoka (146 buru) eta Euskal Zerria (120 zerramarekin). Arraza honek iparralden du jatorria: Biarnon eta Nafarroako ipar aldean zabalduzko arraza izanik, azken urteetan Hego Euskal Herriko beste zenbait eskualdetara zabaldu da. Garai batean Pirinioetako ekialde osoan hedatuta zegoen, bi isurialdeetan. Gureari begira, Lizasoko granja eskolan aurkitu dugu argazkiko zerri handi hau.

Bitxikeriak: Historia

Iparraldeko agiritegi historikoetan agertzen da zerrien hazkunderako ezarriak zirela lege eta zergak XV. mendetik aurrera. Zerriak mendietara eramaten omen zituzten gaztain, ezkur eta antzekoak jatera udazkenean. Zerrizainek zerga bat ordaindu behar izaten zuten beraien zerriak herri lurretan bazkaltzeko. Nafarroako erregeek hartzen zuten

“quinta” izeneko zerga bat “Erregearen mendietan” bertan zerriak ibiltzearen sari gisa: 5 zerrietarik 1 hartzen zuten. Zerga horrek “iurdea” edo “ehiurdea” zeukan izena. (Wikipediatik hartua)

Izen bat

Pierre Oteiza, Alduden bizi den ekoizlea dugu. XX. mendearen erdialdera, Euskal zerri arrazako ale gutxi zeuden eta zenbait abeltzainen adore eta lanari esker lortu zuten arraza mantentzea. Hala ere, ordurako desagertuta zeuden euskal zerriaren arrazako beste bi arraza hurbilak, Gasteizko muturmotz zerria eta Baztango zerria.

Ugaritzen doa

Iparralden, 1989an, Nafarroa Beherean, 25 ale zeuden; 2000. urtean, berriz, 1500 ale. Milurteko honen lehen hamarkadan Hegoaldera ere dezente zabaldu da.

Data bat

2003ko abenduaren 9a. “Euskal txerria” zerri-arrazaren arautze zehatza onartu zen. Urte pare bat lehenago legea tramitatzen hasi bazen ere, egun horretan bertan, Euskal Herriko Bertako Abere-Arrazen Katalogo Ofiziala ezarri zuten, eta arraza-estandarrik onesteko oinarritzko baldintzak ere bai. Gainera, Euskal Herriko Bertako Abere-Arrazen Kontseilua sortu zuten.



Lizasoko Baserri Eskolan duten zerria irudietan

ZEIN ANIMALI IKUSI NAHI DUZU ATAL HONETAN?
IDATZI PULUNPE@GMAIL.COM HELBIDERA!



Gure alderdian **Azaroan**izan ziren Jaiotzak, ezkontzak eta heriotzak


JAIOTZAK

ULTZAMA
Oier Ezkurra Goienetxe, Urritzolan jaioa, Kortagainen,
2014.11.01ean, Iñaki eta Rakelen semea.

Eki Zubieta Ariztegi, Suarben jaioa, Aldapako etxean,
2014.11.19an, Marta eta Ricardoren semea.



Oier



Eki bere gurasoekin.

ZORIONAK JAIOBERRIEN GURASOEI!

EZKONTZAK

ATETZ:
AROTZTEGI

Alfonso Maria Serrano Perez Nieves, Aroztegiko Bei-
tikoetxekoa eta Marta Gaston Valenzuela,
2014.11.29an.

IMOTZ-ODIETA

Borja Teruel Erauskin, Erasoko Apezetxekoa eta Rebeca
Arraztoa Arretxea,

Gelbentzuko Arkialdekoka, 2014.11.22an.



Alfonso eta Marta, Noa beren alabatxoarekin

URTE, UME ETA ZORIONAK PERRATAKA EZKONBERRIEI.

HERIOTZAK

IMOTZ
Miguel Maria Urritza Mugertza, Urritzako Mugertzaren etxeko
nagusia,



Migel Mari

GURE OROIMENEAN IZANEN ZARA

Jarri zaitez kontaktuan gurekin iragarkia sartzeko!



pulunpe@gmail.com

VENTA DE LEÑA A DOMICILIO



☎ 635 90 91 95
✉ promanburillo@gmail.com



Erbiti, Basaburua

Gure egurraren kalitatea eta prezioak ikusten dituzunean kea aterako diezu

DABID ELIZONDO PINTURAK
DEKORAZIO- ETA INDUSTRIA-PINTURA
TEL: 678 623866
argapin@hotmail.com

gotelet-a kentzea / paretak leuntzea
fatxadak zaharberritzea
iragazgaizteak (impermeabilizaciones)
kalitatea eta garbitasuna
aurrekontuak konpromisorik gabe

ZIAURRITZ

Internet etxean arazorik gabe!

- Satelite bidezko Internet instalatzaileak. Benetazko 20 mega, hilean 25,90€-tik aurrera. Jarri ezazu Internet zure etxean, kokapena arazoa izan gabe.
- Telebista antenen instalazioak eta konponketak.
- Canal Plus-eko banatzaileak eta instalatzaileak. Eskaintza bereziak bezero berrientzat.
- Atezain automatikoak.

Tel: 848 410 500
WWW.SENATEL.ES
info@senatel.es



Txíkí-txíkía bada ere
Ibaí poteretsuarekín
Leihatzen da
eta horregatik dago bizirik

Urte Berrí On!